



**g e h i t u**

asociación de gays y lesbianas del país vasco  
euskal herriko gay eta lesbianen elkartea

**Donostia – San Sebastián, 2000ko azaroaren 8a**

**Iruñea, Mondoñedo eta Malagako Apezpiku jaunei:**

GEHITU Euskal Herriko Gay eta Lesbianen Elkarteak ohore eta atsegin handiz jakinarazten dizu, ezen, gure Zuzendaritza Batzordeak GEHITU-REN LATORRIZKO SARIA 2000 zuei ematea erabaki duela, gure elkarteak urtero sari hau ematen baitio lesbiana, gay eta transexualen eskubideekiko erdeinuz jokatzegatik nabarmendutako pertsonari edota erakundeari.

Baterako kandidatura honetan bereiziki baloratu da orientazio homosexualen pertsonak iraintzeko egin duzuen ahalegina, bai gizarte osoaren aurrean bai eliztarrei zuzenduriko pastoraletan, homosexualen pertsona gisa dagokien duintasuna ukatu eta predikatzen duzuen begirunea toki txarrean utziz.

Eliza Katalikoaren Hierarkiaren aldetik erakutsitako jokabide ezegoki honen aurrean gure atsekabearen berri ere eman nahi genuke, fededunekin eta baseko sinestunekin bat ez datorren jokabidea bada ere. Izan ere, behin eta berriz erakusten dituzuen intolerantziak eta ulertuezinak dagoeneko emanda dauzka beste hainbat perla (Gay Harrotasun Eguna Erroman antolatzearen aurkako presioak, sexuaren bidez helarazten diren sexu gaixotasunak prebenitzeko sistemak eta antisorgailuak erabiltzeagatik egindako gaitzespenak, eta abar). eta horiek guztioriek ere mereziko lukete sari hau, noski.

*Oharra: Saria emateko ekitaldia larunbat honetan, azaroak 11, egingo da, Donostian antolatutako Homosexualitateari buruzko III. Jardunaldiei amaiera emango dien Kontzertuaren haritik, "Familia berriak: familia homosexuala" izenburu generikoaren pean GEHITUK bere hirugarren urteurrena ospatu baitu. Kontzertua 23:00etan hasiko da eta Saria ordubete beranduago ematea aurreikusita dago (igandeko 00:00ak aldean). Zuen ordezkariaren bat bertan izango dela baieztatzeko, jar zaitezte harremanetan, mesedez, 943 277 368 edota 667 452 541 telefonoekin, bi kasuetan Davidez galdetuz..*